

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

#### Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

7.783

**7/2006 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA**, abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua eta Hiri Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 46/1989 Foru Arauan aldatzen dira.

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak xedatzen du Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zerga-gaia landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zenbait esku-bideren titular izateak eratzen duela. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kategoria ez zen jasotzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen bidez, ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kategoria erantsi nahi zaio Arabako zerga sistemari. Horrek berekin Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua eta Hiri Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 46/1989 Foru Arauan zenbait aldaketa egin beharra dakar.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez, Hiri Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren arabera, ezaugarri bereziko ondasun higiezinak duten balio gehikuntza zerga-gai izango da.

Aurrekoaz gain, landa zein hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren katastro balioa eguneratu egiten da. Aurrerantzean % 2 gehiago izango da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiari aitortzen dizkieten aginpideak erabiliz, premiazko arrazoiengatik, honakoa

#### XEDATU DUT:

**1. artikulua.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua aldatzea.**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren ondoko artikulua aldatzen dira. Artikulu horiek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute indarra:

**Bat.** 2. artikulua 1. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“1. Landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko ondoko eskubideen titular izatea da zerga-gaia:

a) Administrazio-kontzesio baten titularitatea, ondasun higiezinaren gainekoa edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gainekoa.

b) Azalera-eskubide erreala.

c) Usufruktu-eskubide erreala.

d) Jabetza-eskubidea.”

**Bi.** 2. artikulua 3. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“3. Zerga honi dagokionez, foru arau honen 3. artikuluan zerrendatutakoak izango dira landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin.”

**Hiru.** 3. artikulua aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

#### Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

7.783

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 7/2006**, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, que modifica las Normas Forales 42/1989 y 46/1989, ambas de 19 de julio, reguladoras de los Impuestos sobre bienes inmuebles y sobre el Incremento del Valor de los terrenos de naturaleza urbana, respectivamente.

El Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, que aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, determina que constituye el hecho imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles la titularidad de determinados derechos sobre los bienes inmuebles rústicos, urbanos y de características especiales. Esta tercera categoría de bienes no existía hasta el momento en la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Mediante el presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se pretenden incorporar al sistema tributario de Álava los bienes inmuebles de características especiales, suponiendo este cambio modificaciones tanto en la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, como en la Norma Foral 46/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

En concreto, en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana se declaran sujetos los incrementos de valor que experimenten los terrenos integrados en los bienes inmuebles clasificados como de características especiales a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Además de lo anterior, también se procede a actualizar en un 2 por 100 los valores catastrales tanto de naturaleza rústica, como de naturaleza urbana.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

#### DISPONGO:

**Artículo 1.- Modificación de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.**

Con efectos de 1 de enero de 2007 se modifican los siguientes artículos de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles:

**Uno.** Se modifica el apartado 1 del artículo 2 que queda redactado en los siguientes términos:

“1. Constituye el hecho imponible del Impuesto la titularidad de los siguientes derechos sobre los bienes inmuebles rústicos y urbanos y sobre los inmuebles de características especiales:

a) De una concesión administrativa sobre los propios inmuebles o sobre los servicios públicos a que se hallen afectos.

b) De un derecho real de superficie.

c) De un derecho real de usufructo.

d) Del derecho de propiedad.”

**Dos.** Se modifica el apartado 3 del artículo 2 que queda redactado en los siguientes términos:

“3. A los efectos de este Impuesto tendrán la consideración de bienes inmuebles rústicos, de bienes inmuebles urbanos y de bienes inmuebles de características especiales los definidos como tales en el artículo 3 de esta Norma Foral.”

**Tres.** Se modifica el artículo 3 que queda redactado en los siguientes términos:

## “3. artikulua

1. Katastroaren ondorioetarako, ondasun higiezin izango da izaera bera eta bakarra duen lurzattia, baldin eta udalerrri baten barruan badago eta poligono batek mugatzen badu; Poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen du eta, hala bada, jabea edozein dela ere, eremu horretako eraikuntzak ere ondasun higiezin izango dira, higiezina dela-eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezin izango dira:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatuak, jabetza horizontaleko erregimen bereziari lotuak; elkarri lotutako elementu pribatuek osatutako multzoak, baldin eta egintza bateratuan eskuratu badira, eta, arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, titular baten erabilera eta gozamen eskusiboari eta iraunkorrari pro indiviso atxikiak badira. Katastroaren ondorioetarako, elementu komunak arauzko eran gehituko zaizkie ondasun higieziinei.

b) Artikulu honen laugarren paragrafoan jasotakoak.

c) Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio emakida baten espazio-eremua, salbu eta aurreko idatz-zatietan xedatutako egoeretan.

2. Honako hauek dira hiriko ondasun higiezin:

a) Hiri-lurzorua, ordezeko arauetan urbanizatzeko egokia den lurzoruzat hartutakoa, lurzoru urbanizagarria edo autonomiako administrazioak horren baliokidetzat jo duena, estatuko legeetan lurzoru urbanizagarriari aitortutako hirigintza-ahalmen berberak dituelako.

Halaber, hauek ere hiriko ondasun higiezin izango dira: bide zolatuak edo espaloi zintaridunak dituzten lurzoruak, eta, horretaz gain, estolderia, ur-hornidura, argindarraren hornidura eta argiteria publikoa, bai eta hiriko eraikuntzek hartzen dituzten lurrak ere.

Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak ere multzo berean sartuko dira, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiriko eraikuntzak, honakoak esaterako:

a) Eraikinak, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera edozein delarik ere, eraikitze moduagatik guztiz eramangarriak izan arren, eta hartzen duten lurra eraikuntzaren jabearena izan ez arren; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritzako eta industriako instalazioak, adibidez, dikeak, andelak eta zamatze tokiak.

b) Urbanizazio eta hobekuntza obrak, lur berdinketak, esaterako, eta espazio irekiak erabiltzeko egingo diren obrak. Hor sartzen dira azoka barrutiak, aire zabaleko andelak, kirola egiteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

c) Ondoko idatz-zatian landako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden eraikinak.

Baina, izaera bereziko ondasun higiezinak biltzen dituen lurzoruak ez dira hiri lurrak izango.

3. Landa lurra da, hiri lur ez dena, ezta izaera bereziko ondasun higiezinaren zati ere, aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

Zerga honen ondorioetarako, batez ere honako hauek izango dira landa ondasun higiezin:

a) Hiri lurrak ez direnak, aurreko paragrafoaren a) idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

b) Landako eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikinak edo instalazioak, landa lurretan daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo

## “Artículo 3

1. A los exclusivos efectos catastrales, tiene la consideración de bien inmueble la parcela o porción de suelo de una misma naturaleza, enclavada en un término municipal y cerrada por una línea poligonal que delimita, a tales efectos, el ámbito espacial del derecho de propiedad de un propietario o de varios pro indiviso y, en su caso, las construcciones emplazadas en dicho ámbito, cualquiera que sea su dueño, y con independencia de otros derechos que recaigan sobre el inmueble.

Tendrán también la consideración de bienes inmuebles:

a) Los diferentes elementos privativos de los edificios que sean susceptibles de aprovechamiento independiente, sometidos al régimen especial de propiedad horizontal, así como el conjunto constituido por diferentes elementos privativos mutuamente vinculados y adquiridos en unidad de acto y, en las condiciones que reglamentariamente se determinen, los trasteros y las plazas de estacionamiento en pro indiviso adscritos al uso y disfrute exclusivo y permanente de un titular. La atribución de los elementos comunes a los respectivos inmuebles, a los solos efectos de su valoración catastral, se realizará en la forma que se determine reglamentariamente.

b) Los comprendidos en el apartado 4 de este artículo.

c) El ámbito espacial de un derecho de superficie y el de una concesión administrativa sobre los bienes inmuebles o sobre los servicios públicos a los que se hallen afectos, salvo que se den los supuestos previstos en las letras anteriores.

2. Tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza urbana:

a) El suelo urbano, el declarado apto para urbanizar por las Normas subsidiarias, el urbanizable o asimilado por la legislación autonómica por contar con las facultades urbanísticas inherentes al suelo urbanizable en la legislación estatal.

Asimismo tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza urbana los terrenos que dispongan de vías pavimentadas o encintado de aceras y cuenten, además, con alcantarillado, suministro de agua, suministro de energía eléctrica y alumbrado público y los ocupados por construcciones de naturaleza urbana.

Tendrán la misma consideración los terrenos que se fraccionen en contra de lo dispuesto en la legislación agraria siempre que tal fraccionamiento desvirtúe su uso agrario, y sin que ello represente alteración alguna de la naturaleza rústica de los mismos a otros efectos que no sean los del presente Impuesto.

b) Las construcciones de naturaleza urbana, entendiéndose por tales:

a) Los edificios sean cualesquiera los elementos de que estén contruidos, los lugares en que se hallen emplazados, la clase de suelo en que hayan sido levantados y el uso a que se destinen, aun cuando por la forma de su construcción sean perfectamente transportables, y aun cuando el terreno sobre el que se hallen situados no pertenezca al dueño de la construcción, y las instalaciones comerciales e industriales asimilables a los mismos, tales como diques, tanques y cargaderos.

b) Las obras de urbanización y de mejora, como las explanaciones y las que se realicen para el uso de los espacios descubiertos, considerándose como tales los recintos destinados a mercados, los depósitos al aire libre, los campos o instalaciones para la práctica del deporte, los muelles, los estacionamientos y los espacios anexos a las construcciones.

c) Las demás construcciones no calificadas expresamente como de naturaleza rústica en el apartado siguiente.

Se exceptúa de la consideración de suelo de naturaleza urbana el que integre los bienes inmuebles de características especiales.

3. Se entiende por suelo de naturaleza rústica aquél que no sea de naturaleza urbana conforme a lo dispuesto en el apartado anterior, ni esté integrado en un bien inmueble de características especiales.

En particular, y a efectos de este Impuesto tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza rústica:

a) Los terrenos que no tengan la consideración de urbanos conforme a lo dispuesto en la letra a) del apartado anterior.

b) Las construcciones de naturaleza rústica, entendiéndose por tales los edificios e instalaciones de carácter agrario que, situados en los terrenos de naturaleza rústica, sean indispensables para el desarrollo de las explotaciones agrícolas, ganaderas o forestales.

En ningún caso tendrán la consideración de construcciones a efectos de este Impuesto los tinglados o cobertizos de pequeña

estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi batez gordetzeko, jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzatzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiztezin baitira.

4. Izaera berezia duten ondasun higiezinak berriazko erabilera duen multzoa osatzen dute, eta multzo horren zati ondorengo hauek dira: lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza lanak. Multzoak, berez, horiek guztiak bateratu egiten dituzte, eta beti batera eutsi funtzionatzeko, multzo hori ondasun higiezin bakartzat joko da katastroaren ondorioetarako.

Izaera bereziko ondasun higiezinak joko dira, aurreko paragrafoaren arabera ondorengo talde hauetan sartzen direnak:

- a) Energia elektrikoa eta gasa sortu, eta petrolioa fintzen dituztenak, eta zentral nuklearretarako direnak.
- b) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; urez-taketan erabiltzen direnak izan ezik.
- c) Ordaindu beharreko autobideak, errepideak eta tunelak.
- d) Aireportuak eta merkataritzarako portuak.”

**Lau.** 5. artikulua 1. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“1. Zergadunak diren neurrian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3. paragrafoan zehazten diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak dira subjektu pasibo, baldin eta zerga honetako zerga-gaia osatzen duen eskubidearen titular badira.

Ondasun higiezin baten gainean kontzesiodun bat baino gehiago baldin badira, kanonik handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkoa.”

**Bost.** 14. artikulua 4 eta 5. paragrafoak ezabatzen dira.

**Sei.** 14. artikulua 4, 5 eta 6. paragrafoak aldatzen dira. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak aplikatu beharreko zerga tasa ordezkaria da eta 100eko 0,6 izango da. Udalek tasa berezitua ezarri ahal izango dute udalerrian dauden ondasunen talde bakoitzerako, eta tasa hori ezin da inola ere izan 100eko 0,4 baino txikiagoa, ez eta 100eko 1,3 baino handiagoa ere.

Gehieneko muga 100eko 1,3 dela kontuan izaki, udalek ezin izango diete ezaugarri bereziko ondasun higiezinak ondoko tasa baino handiagoa ezarri: bizitegiarako hiri ondasun higiezinak aplikatu beharreko tasaren halako bi.”

“5. Aurreko paragrafoetan ezarritako mugen barruan, udalek hiri ondasun higiezinarako, bizitegiarakoak izan ezik, zenbait tasa ezarri ahal izango dituzte, eraikitzeak balioesteko katastro arautegian ezarritako erabilera kontuan hartuz. Ondasun higiezinak erabilera bat baino gehiago esleiturik badaukate, eraikuntza edo osagai nagusiaren erabilera dagokion tasa aplikatuko da.

Tasa horiek, gehienez ere, udal barrutiko hiri ondasun higiezin-erabilera bakoitzerako- katastro balio handiena duten % 10i baino ezin izango zaie aplikatu; horri begira, zergaren ordenantzak, erabilera guztietarako edo bakoitzerako, adieraziko du zein balioetatik aurrera izango diren aplikatzekoak gehitutako tasak.

“6. Balioztatze kolektiboko prozedura orokor baten eraginez, landa eta hiri ondasun higiezinak beste katastro balio batzuk sartzen badira indarrean, udalek, gehienez, 8 urterako zehaztu ahal izango dituzte karga-tasa murriztak. Karga-tasa murrizt horiek, hiri ondasun higiezinak gagozkiola, ez dira % 0,1 baino txikiagoak izango, ezta % 0,075 txikiagoak landa ondasun higiezinak dagokienez ere.”

**Zazpi.** 15. artikulua 9. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“9. Balioztatze kolektiboko prozedura orokor baten eraginez, landa eta hiri ondasun higiezinak beste katastro balio batzuk sartzen badira indarrean, udalek subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzarengatik karga-tasaren % 99ko hoberia ezarri ahal izango dute, gehienez ere, 8 urterako, baldin eta etxebizitza horretan bizi diren familia unitateko kide guztiak errentek batera urteko 18.000 euro baino gutxiago egiten badute. Halaber, hobariaren subjektu pasibo onuradunek udalerr

entidad utilizados en explotaciones agrícolas, ganaderas o forestales que, por el carácter ligero y poco duradero de los materiales empleados en su construcción, sólo sirvan para usos tales como el mayor aprovechamiento de la tierra, la protección de los cultivos, albergue temporal de ganados en despoblado o guarda de aperos e instrumentos propios de la actividad a la que sirven y están afectos; tampoco tendrán la consideración de construcciones a efectos de este Impuesto las obras y mejoras incorporadas a los terrenos de naturaleza rústica, que formarán parte indisoluble del valor de éstos.

4. Los bienes inmuebles de características especiales constituyen un conjunto complejo de uso especializado, integrado por suelo, edificios, instalaciones y obras de urbanización y mejora que, por su carácter unitario y por estar ligado de forma definitiva para su funcionamiento, se configura a efectos catastrales como un único bien inmueble.

Se consideran bienes inmuebles de características especiales los comprendidos, conforme al párrafo anterior, en los siguientes grupos:

- a) Los destinados a la producción de energía eléctrica y gas y al refino de petróleo, y las centrales nucleares.
- b) Las presas, saltos de agua y embalses, incluido su lecho o vaso, excepto las destinadas exclusivamente al riego.
- c) Las autopistas, carreteras y túneles de peaje.
- d) Los aeropuertos y puertos comerciales.”

**Cuatro.** Se modifica el apartado 1 del artículo 5 que queda redactado en los siguientes términos:

“1. Son sujetos pasivos de este Impuesto, a título de contribuyente, las personas naturales y jurídicas y las Entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que ostenten la titularidad del derecho que, en cada caso, sea constitutivo del hecho imponible de este Impuesto.

En el supuesto de concurrencia de varios concesionarios sobre un mismo inmueble de características especiales, será sustituto del contribuyente el que deba satisfacer el mayor canon.”

**Cinco.** Se suprimen los actuales apartados 4 y 5 del artículo 14.

**Seis.** Se crean los apartados 4, 5 y 6 del artículo 14 que quedan redactados en los siguientes términos:

“4. El tipo de gravamen aplicable a los bienes inmuebles de características especiales que tendrá carácter supletorio, será del 0,6 por 100. Los Ayuntamientos podrán establecer para cada grupo de ellos existentes en el municipio un tipo diferenciado que, en ningún caso, será inferior al 0,4 por 100 ni superior al 1,3 por 100.

Respetando el límite máximo del 1,3 por 100, los Ayuntamientos no podrán establecer, para estos bienes inmuebles de características especiales, un tipo superior al resultante de multiplicar por 2 el tipo aplicable a los bienes inmuebles urbanos de uso residencial.”

“5. Dentro de los límites resultantes de lo dispuesto en los apartados anteriores, los Ayuntamientos podrán establecer, para los bienes inmuebles urbanos, excluidos los de uso residencial, tipos diferenciados atendiendo a los usos establecidos en la normativa catastral para la valoración de las construcciones. Cuando los inmuebles tengan atribuidos varios usos se aplicará el tipo correspondiente al uso de la edificación o dependencia principal.

Dichos tipos sólo podrán aplicarse, como máximo, al 10 por 100 de los bienes inmuebles urbanos del término municipal que, para cada uso, tenga mayor valor catastral, a cuyo efecto la Ordenanza fiscal del Impuesto señalará el correspondiente umbral de valor para todos o cada uno de los usos, a partir del cual serán de aplicación los tipos incrementados.”

“6. Por excepción, en los municipios en los que entren en vigor nuevos valores catastrales de inmuebles rústicos y urbanos, resultantes de procedimientos de valoración colectiva de carácter general, los Ayuntamientos podrán establecer, durante un período máximo de ocho años, tipos de gravamen reducidos, que no podrán ser inferiores al 0,1 por 100 para los bienes inmuebles urbanos, ni al 0,075 por 100, tratándose de inmuebles rústicos.”

**Siete.** Se modifica el apartado 9 del artículo 15 que queda redactado en los siguientes términos:

“9. En los términos municipales en los que entren en vigor nuevos valores catastrales de inmuebles urbanos, resultantes de procedimientos de valoración colectiva de carácter general, los Ayuntamientos podrán establecer, durante un período máximo de 8 años, una bonificación de hasta el 99 por 100 para los inmuebles con uso exclusivo de vivienda, siempre que ésta tenga el carácter de residencia habitual del sujeto pasivo y el conjunto de los miembros

berean beste etxebizitzarik ez izatea eskatuko da. Hobari hori, aipatutako mugaren barruan, aldakorra izan daiteke. Horretarako kontuan hartuko dira familia unitatea zein errenta tartetan dagoen eta zein den zehaztutako zergaldia.

Aurreko erroaldean aipatutako hobari hori urtero aplikatuko da; aplikatu ere balioztatze kolektiboko prozedura aplikatu ondoren lortutako zergaren kuota osoaren eta katastroa berriro aztertu aurretik etxebizitzari zegokion kuota osoaren artean dagoen aldeari.

Idatz-zati honen lehen paragrafoan xedatutakoak direla-eta ondokoak hartuko dira aintzat:

a) Errenta izango da zerga-oinarria ken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 61. artikuluan aipatutako konpentsazio pentsioak eta jakiengatik urtero jasotakoak. Horretarako, idatz-zati honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urtearen aurreko urtearen aurrekoan lortutako errentak hartuko dira aintzat.

Aurreko idatz-zatian aipatutako errenta zehazteko, Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren aitortpena hartuko da aintzat eta, erreta horren aitortpenik egiteko beharrik ez badago, errenta hori egiaztatze balio duen beste edozein informazio.

b) Familia unitatea abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 91. artikuluan xedatutakoa izango da.”

**Zortzi.** 15. artikuluan 10. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“10. Udalek zergaren kuota osoaren 100eko 90eko hobaria arautu ahal izango dute ordenantza bidez ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezin talde bakoitzaren alde.”

**Bederatzi.** 15. artikuluan 11. paragrafo bat gehitzen zaio. Hona hemen horren idazketa:

“11. Ordenantza fiskalek aurreko apartatuetan aipatutako hobarien alderdi substantibo eta formalak zehaztu beharko dituzte, eta beste zerga onura batzuekin bateragarri izateko baldintzak ezarri.”

**Hamar.** 19. artikuluan 3. paragrafoa aldatzen da. Hona hemen aurrerantzean izango duen idazketa:

“3. Arabako Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzorua mugaketak eta balioztapen txostenak egin eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga eroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspina, kontserbazioa eta gainerako funtzioak ere berari dagokio.

Udalek katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko diote foru aldundiari.

Era berean, foru aldundiari dagokio ordainagiriak egitea. Foru arau honen 15. artikuluan 7 eta 9. eta 14. artikuluan 4 eta 5. paragrafoetan aipatzen diren hobari pertsonalak udalek zehazten badituzte, ordainagiriak ere udalek berek egingo dituzte. Era berean, foru aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskaritza egitea.

Foru arau honen 4. artikuluan xedatutako salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko, ezinbestekoa izango da foru aldundiaren txosten tekniko izatea, eta, ondoren, foru aldundiari eman beharko zaio hartutako erabakiaren berri.

**2. artikulua.- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araua aldatzea.**

2007ko urtarrilaren 1etik ondoreak izateko, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauaren 1. artikuluan 4. paragrafoa sortu da, eta honelaxe geratzen da idatzita:

“4. Zergapekoa izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako, ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatutako ondasun higiezinetara bildutako lurren balioa gehitzea.”

de la unidad familiar que resida en ella tengan una renta inferior a 18.000 euros anuales. Igualmente se exigirá que los sujetos pasivos beneficiarios de la bonificación no dispongan de ningún otro inmueble con uso exclusivo de vivienda en el mismo término municipal. Esta bonificación podrá ser de diferente importe, dentro de los límites señalados, en función de diferentes tramos de renta de la unidad familiar y por el período impositivo que se determine.

La bonificación a que se refiere el párrafo anterior se aplicará, cada año, a la diferencia que resulte entre la cuota íntegra del Impuesto aplicada tras el procedimiento de valoración colectiva de carácter general y la cuota íntegra correspondiente a la vivienda antes de la citada revisión catastral.

A los efectos establecidos en el párrafo primero de este apartado, se entenderá:

a) Por renta se entenderá la base imponible minorada en la reducción por pensiones compensatorias y anualidades por alimentos a que se refiere el artículo 61 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. A estos efectos se tendrá en cuenta las rentas obtenidas en el segundo año anterior al período en que se vaya a aplicar la bonificación a que se refiere este apartado.

A efectos de determinar la renta a que se refiere el párrafo anterior, se tendrá en cuenta la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y, en el supuesto de que no se tenga obligación de presentar la citada declaración, cualquier información que permita acreditar la misma.

b) Por unidad familiar se entenderá la definida en el artículo 91 de la citada Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre.”

**Ocho.** Se modifica el apartado 10 del artículo 15 que queda redactado en los siguientes términos:

“10. Los Ayuntamientos mediante Ordenanza podrán regular una bonificación de hasta el 90 por 100 de la cuota íntegra del Impuesto a favor de cada grupo de bienes inmuebles de características especiales.”

**Nueve.** Se crea un nuevo apartado 11 en el artículo 15 con la siguiente redacción:

“11. Las Ordenanzas Fiscales especificarán los aspectos sustantivos y formales de las bonificaciones indicadas en los apartados anteriores, así como las condiciones de compatibilidad con otros beneficios fiscales.”

**Diez.** Se modifica el apartado 3 del artículo 19 que queda redactado en los siguientes términos:

“3. Corresponde de forma exclusiva a la Diputación Foral de Álava la realización y aprobación de las delimitaciones del suelo y de las Ponencias de Valores, así como la fijación, revisión y modificación de dichas delimitaciones y valores catastrales y la formación, revisión, conservación y demás funciones inherentes a los Catastros y al Padrón del Impuesto.

Los Ayuntamientos colaborarán con la Diputación Foral para la formación y conservación del Catastro.

Igualmente corresponde a la Diputación Foral la confección de los recibos cobratorios. En los casos en que los Ayuntamientos establezcan las bonificaciones de tipo personal a que se refieren los apartados 7 y 9 del artículo 15 de esta Norma Foral, así como en los supuestos previstos en los apartados 4 y 5 del artículo 14 del citado cuerpo legal, la confección de los recibos corresponderá a los Ayuntamientos. Igualmente corresponde a la Diputación Foral la inspección catastral del Impuesto.

La concesión y denegación de las exenciones y bonificaciones contempladas en el artículo 4 de esta Norma Foral requerirán, en todo caso, informe técnico previo de la Diputación Foral, con posterior traslado a ésta de la resolución que se adopte.”

**Artículo 2.- Modificación de la Norma Foral 46/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.**

Con efectos de 1 de enero de 2007, se crea un nuevo apartado 4 en el artículo 1 de la Norma Foral 46/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana que queda redactado de la siguiente forma:

“4. Estará sujeto al Impuesto el incremento de valor que experimenten los terrenos integrados en los bienes inmuebles clasificados como de características especiales a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.”

**3. artikulua.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: katastro balioak eguneratzea.**

**Bat.** Aldaketak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina duela, Ogasun Higiezinaren gaineko Zergako katastro balio guztiak, bai landa ondasunenak, bai hiri ondasunenak, 1,02 koefizientea aplikatuz eguneratuko dira. Koefiziente horren aplikazioa jarraian adierazten denaren arabera egingo da:

a) Katastroan dauden datuen arabera balioetsitako ondasun higiezinak direnean, ondasun horiei 2006. urterako esleitutako balioaren gainean aplikatuko da.

Horri dagokionez, aipatu koefizientea lurzorua edo lurrairekin balioari eta eraikuntzen balioari aplikatuko zaie.

b) Ondasun higiezinak katastroan dauden datuen arabera aldaketa fisiko edo juridikorik jasan badute eta jasandako aldaketa horiek eraginkortasunik izan ez badute, aipatutako koefizientea ondasun horiei esleitutako balioaren gainean aplikatuko da, zirkuntantzia berriak kontuan hartuz, eta udalerriko gainerako ondasun higiezinaren katastro balioak finkatzeko oinarri izan diren moduluak aplikatuz. Artikulu honetako aurreko letrako bigarren paragrafoan ezarritakoa ere aplikatuko da kasu hauetan.

c) Eguneratze koefiziente hauen aplikaziotik kanpo egongo dira 2004, 2005 eta 2006. urteetan zehar onartutako Balio Txostenak aplikatzearen ondorioz lortutako katastro balioak dituzten hiri ondasun higiezinak.

**Bi.** Aurreko Bat paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, kontuan hartuko da, bidezko diren neurri eta kasuetan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 42/1989 Foru Arauan, uztailaren 19koan, xedatutakoa.

**XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA**

Foru arau honetan jasotako aldaketan edukiarri egokitzeko, beren zerga-ordenantzak aldatu behar dituzten udalek zerga-ordenantza berrien behin betiko testua onartuko dute, baita 2007ko apirilaren 30a baino lehen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ere, halaxe xedatzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan. Testu horrek 2007an zehar baino ez du indarra izango.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa.- Indarrean izatea.

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean xedapena hau, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak bere artikuluetan xedatutakoak.

Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo ezeztatu dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorrira.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 5a.- Diputatu nagusia, Ramón Rabanera Rivacoba.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

7.873

**8/2006 ZERGA-PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, abenduaren 13ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia tabakoaren inguruko lanen gaineko zerga berezien aldaketetara egokitzen da, azaroaren 10eko 10/2006 Errege Dekretuak ezarritako aldaketetara hain zuzen.**

Azaroaren 10eko 10/2006 Legegintzako Errege Dekretua onartzeak eta argitaratzeak (lege horren bidez aldatu ziren tabakoaren inguruko lanen gaineko zergaren tasak) aldaketak sartu beharra ekarri du Tabakoaren inguruko Lanen gaineko Zerga Berezian; zehatzago esanda, zigarro bakoitzagatik ordaindu beharreko gutxieneko oinarri bakarra handitzea.

Ekonomi Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutak, 33. bat artikuluan xedatu bezala, Zerga Bereziak itundutako

**Artículo 3.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles: actualización de los valores catastrales.**

**Uno.** Con efectos de 1 de enero de 2007, se actualizarán todos los valores catastrales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, tanto de naturaleza rústica como de naturaleza urbana, mediante la aplicación del coeficiente del 1,02. Este coeficiente se aplicará en los siguientes términos:

a) Cuando se trate de bienes inmuebles valorados conforme a los datos obrantes en el Catastro, se aplicará sobre el valor asignado a dichos bienes para el año 2006.

A este respecto el citado coeficiente se aplicará sobre el valor del suelo o del terreno y sobre el valor de las construcciones.

b) Cuando se trate de inmuebles que hubieran sufrido alteraciones de orden físico o jurídico conforme a los datos obrantes en el Catastro, sin que dichas variaciones hubieran tenido efectividad, el mencionado coeficiente se aplicará sobre el valor asignado a tales inmuebles, en virtud de las nuevas circunstancias, con aplicación de los módulos que hubieran servido de base para la fijación de los valores catastrales del resto de los bienes inmuebles del municipio. A estos supuestos también se aplicará lo establecido en el párrafo segundo de la letra anterior de este artículo.

c) Quedan excluidos de la aplicación de este coeficiente de actualización los bienes inmuebles urbanos cuyos valores catastrales se obtengan de la aplicación de las Ponencias de Valores aprobadas durante los años 2004, 2005 y 2006.

**Dos.** A efectos de aplicar lo dispuesto en el apartado Uno anterior, se tendrá en cuenta, en la medida y supuestos procedentes, lo establecido en la Disposición Transitoria Primera de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA**

Con efectos exclusivos para el ejercicio 2007, los Ayuntamientos que deban modificar sus Ordenanzas Fiscales en orden a su adaptación al contenido de las modificaciones operadas en esta Norma Foral, deberán aprobar el texto definitivo de las nuevas Ordenanzas Fiscales y publicarlas en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, todo ello con arreglo a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, antes del 30 de abril de 2007.

**DISPOSICIONES FINALES**

Primera.- Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, produciendo los efectos señalados en su articulado.

Segunda.- Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de diciembre de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

7.873

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 8/2006, del Consejo de Diputados de 13 de diciembre, que adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Álava a las modificaciones en el Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco establecidas por el Real Decreto Ley 10/2006, de 10 de noviembre.**

La aprobación y publicación del Real Decreto Ley 10/2006, de 10 de noviembre, por el que se modifican los tipos impositivos del Impuesto sobre las Labores del Tabaco, ha supuesto la introducción de modificaciones en el Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco, y en concreto el incremento del tipo mínimo único exigible respecto de los cigarrillos.

El Concierto Económico, aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, en el apartado Uno de su artículo 33, establece que los